



ERABAKIA, 2021eko UZTAILAREN 22koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA.

EGITEZKO AURREKARIAK

Aurreikusita Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lanpostu batzuk betetzeko beharra izango dela, 2019ko ekainaren 25eko Erabakiaren bidez deitutako lekualdatze lehiaketaren mugimenduak eta laster hartuko diren erretiroak direla-eta, Gerentzia honek deialdia egitea ebatzi du, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean xedatutakoaren arabera, erabaki honetako eranskinean zerrendatzen diren lanpostuak zerbitzu eginkizuneko prozeduraren bidez betetzeko.

ZUZENB IDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Zerbitzu-betekizuna honako arautegietan zehazten da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean, 190/2004, urriaren 13ko Dekretuan, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65,2. artikuluan eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioen zerbitzu eginkizunen prozedura barematua ezartzeari buruzko AZPko. Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioan. Akordioa, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez.

Bigarrena.- Era berean, honako lege hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-Prozedura erkidearena, gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

Hirugarrena.- Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko den 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiarekin bat etorritik (2021eko otsailaren 12ko EHAAn);

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERAB AKI DUT

Bakarra.- Erabaki honen eranskinean zehazten diren lanpostuak aldi baterako zerbitzu-betekizunetan betetzeko deialdia iragartzea.

OINARRIAK

Lehenengoa: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Lehenengo zuzenbideko oinarrian aipatzen den 2017ko uztailaren 18ko akordioa izango da.



Aipatutako Akordioa ikus daiteke UPV/EHUko web-orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Bigarrena- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, Jasotzailea atalean Pertsonaleko Gerenteordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUen; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Hirugarrena- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena- Balioztatu beharreko merezimenduak 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 6. artikuluan azaldutakoak izango dira, Artikulu honetan arautzen diren murrizketak kontutan hartuz.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena- Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 5. artikuluan esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari, Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei eta maila pertsonal finkatuari dagozkion merituenak.

Seigarrena- Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko a-kordioaren 4.2. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Leioan, 2021eko uztailaren 22an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia
(2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).



Miren Lorea Bilbao Arteché
UPV/EHUko geretea



ERANSKINA

Egoera	LZ	Zk.	RD	Lanpostuaren izena	Hor.	H.E.	Talde	Esk.	O.E./R.P.	Esp.	Maila	H.Esk.	B.E.	Carrp.	LN
TALDEA: A															
ESFALA: 07 Artxibo, Biblioteka eta Museuetako Ahalduinak															
U080 UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 260	364		Campus-eko biblioteka-ko zuzendaritza eta Unibertsitateko Biblioteka-ko arloko burua	3	C	A	07	23085,72		25	3		3	N
JG	F 1052	368		Bibliotekari aplikatutako teknologia berrien arloko burua	1	C	A	07	17871,36		23	3.11/05	23	3	N
ESFALA: 01 Gestio-Teknikaria															
U008 IKERKETAAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTZA															
JG	F 1226	380		Ikerketak eta Datuak Ataleko burua	1	C	A	01	20277,6		24	3.14/01		3	N
U023 ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTZA															
JG	F 969	253		Azterlan, agiri eta proiektuen arduraduna	1	C	A	01	20277,6		24	3.12/02		3	N
U031 KONTABILITATE ETA AURREKONTU GERENTE ORDEZTZA															
JG	F 929	214		Ondare Kontabilitatearen Ataleko burua	1	C	A	01	20277,6		24	3	02	3	N
U032 PERTSONALAREN GERENTE ORDEZTZA															
JG	F 1127	296		Nominen Zerbitzu-ko burua	1	C	A	01	25539,78		26	3.09/09	01/02	3	N
JG	F 136	055		AZPKoen Ataleko burua	1	C	A	01	20277,6		24	3.12/02		3	N
JG	F 936	223		Ongizate laguntza eta lan harremanetako teknikari arduraduna	1	C	A	01	20277,6		24	3		3	N
U036 BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTE ORDEZTZA															
JG	F 1134	287		Campus-eko Zerbitzu-ko burua	3	C	A	01	25539,78		26	3.09/09		3	N
TALDEA: A/B															
ESFALA: 07/08 Artxibo, Biblioteka eta Museuetako Ahalduinak / Aituriak															
U081 ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 216	365		Biblioteka zerbitzuaren arduraduna	3	C	A/B	07/08	17871,36		23	3.15/09		1	NS
ESFALA: 01/06 Gestio-Teknikaria/Unibertsitate-Gestioa															
U008 IKERKETAAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTZA															
JG	F 1225	379		Ikerketen Kontratazio eta Presakuntzarako Baliabideen Gestioaren Ataleko burua	1	C	A/B	01/06	17871,36		23	3.14/01		3	N
U009 GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTZA															
JG	F 984	247		Ikasketen Plan, Ikas-tegi eta Sailen Ataleko burua	1	C	A/B	01/06	20277,6		24	3	11B2/15B1	3	N
U205 HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA															
JG	F 1153	281		Ikas-tegi-ko teknikaria	11	C	A/B	01/06	17871,36		23	3.09/09		2	N
U310 ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA															
JG	F 1085	281		Ikas-tegi-ko teknikaria	1	C	A/B	01/06	17871,36		23	3.09/01		3	N
U305 EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA															
JG	F 1086	281		Ikas-tegi-ko teknikaria	2	C	A/B	01/06	17871,36		23	3.12/12	11B2	3	N
U320 ARTE EDERREN															
JG	F 1157	281		Ikas-tegi-ko teknikaria	12	C	A/B	01/06	17871,36		23	3.09/09		3	N
TALDEA: B															
ESFALA: 08 Artxibo, Biblioteka eta Museuetako Aituriak															
B305 BIBLIOTEKA / EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA															
JG	F 252	118		Ikas-tegi-ko bibliotekaren arduraduna	17	C	B	08	17871,36		23	3.12/02		3	N
U081 ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 1016	366		Biblioteka-ko atalaren arduraduna	4	C	B	08	15634,5		22	3		1	TS
U082 GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 221	366		Biblioteka-ko atalaren arduraduna	6	C	B	08	15634,5		22	3.11/05		2	TS
JG	F 225	025		Biblioteka-ko laguntzailea	4	C	B	08	13816,04		21	3.94/01		2	MS
U083 BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 287	366		Biblioteka-ko atalaren arduraduna	13	C	B	08	15634,5		22	3.15/09		3	T
ESFALA: 06 Unibertsitate-Gestioa															
U009 GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTZA															
JG	F 96	049		Ikasleen Ataleko burua	1	C	B	06	17871,36		23	3.14/01		3	N
JG	F 87	076		Gestio Akademikoaren Ataleko burua	1	C	B	06	17871,36		23	3.12/02		3	N
U031 KONTABILITATE ETA AURREKONTU GERENTE ORDEZTZA															
JG	F 132	152		Aurrekontuen jarraipen eta kontrol-eko teknikaria	1	C	B	06	17871,36		23	3.98/12	05	3	N
TALDEA: B/C															
ESFALA: 06/02 Unibertsitate-Gestioa / Administrataria															
U305 EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA															
JG	F 427	375		Koordinatzailea	12	C	B/C	06/02	15634,5		22	3		2	N
TALDEA: C															
ESFALA: 02 Administrataria															
U082 GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 1044	258		Biblioteka-ko teknikari laguntzailea	10	C	C	02	10850,14		18	2.12/02		2	TS
U083 BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA															
JG	F 1050	258		Biblioteka-ko teknikari laguntzailea	14	C	C	02	10850,14		18	2.10/06		3	T
U130 LETREN FAKULTATEA															
JG	F 1239	280		Arloaren arduraduna	9	C	C	02	14100,8		20	3.16/12		1	N



TALDEA: C/D												
ESKALA: 02/03 Administraria / Administrazio-Laguntzailea												
	U009		GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTA									
ZEO	F 79	090	Bulegoko burua	46	C	C/D	02/03	12321,54	19	3.21/03	3	N
ZEO	F 88	090	Bulegoko burua	49	C	C/D	02/03	12321,54	19	3.21/03	3	N
ZEO	F 97	090	Bulegoko burua	51	C	C/D	02/03	12321,54	19	2.95/01	3	N
	U032		PERTSONALAREN GERENTE ORDEZTA									
ZEO	F 1123	090	Bulegoko burua	58	C	C/D	02/03	12321,54	19	3.21/03	3	N
ZEO	F 150	283	Administrazio orokorra	2	C	C/D	02/03	10850,14	18	2	3	N
JG	F 1201	283	Administrazio orokorra	20	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.11/06	3	N
	U305		EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA									
ZEO	F 654	139	Saileko idazkaria	9	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.14/01	3	N
JG	F 670	139	Saileko idazkaria	26	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.21/03	3	N
	U306		BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA									
ZEO	F 838	090	Bulegoko burua	31	C	C/D	02/03	12321,54	19	2.95/01	3	N
	00112		INGENIARITZA KIMIKOA ETA INGURUMENAREN INGENIARITZA SAILA									
JG	F 708	139	Saileko idazkaria	55	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.12/98	3	N
	00301		PREBENTZIO MEDIKUNTZA ETA OSASUN PUBLIKOA SAILA									
JG	F 895	139	Saileko idazkaria	101	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.15/09	3	N
	00331		ENPRESA ZUZENBIDEA ETA ZUZENBIDE ZIBILA SAILA									
ZEO	F 713	139	Saileko idazkaria	59	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.94/01	2	N
	00340		POLIMERO ETA MATERIAL AURRERATUAK: FISIKA, KIMIKA ETA TEKNOLOGIA SAILA									
LSO	F 745	139	Saileko idazkaria	90	C	C/D	02/03	10850,14	18	2	2	N
	00350		ESKULTURA ETA ARTE ETA TEKNOLOGIA SAILA									
JG	F 736	139	Saileko idazkaria	81	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.14/01	3	N
	00351		FILOLOGIA ETA HISTORIA SAILA									
JG	F 667	139	Saileko idazkaria	23	C	C/D	02/03	10850,14	18	2.12/22	1	N
TALDEA: D												
ESKALA: 03 Administrazio-Laguntzailea												
	U009		GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTORE ORDEZTA									
JG	F 108	018	Administrazio laguntzailea	230	C	D	03	11716,74	16	2.12/02	3	N
	U206		GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA									
JG	F 440	018	Administrazio laguntzailea	38	C	D	03	11716,74	16	2.14/01	2	N
	U310		ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA									
JG	F 460	018	Administrazio laguntzailea	41	C	D	03	11716,74	16	2.12/02	3	N
TALDEA: E												
ESKALA: 04 Menpekoa												
	U309		MEDIKUNTZA ETA ERIZAITZA FAKULTATEA									
ZEO	F 541	114	Ateazain nagusia	45	C	E	04	11716,74	16	2.08/01	3	T

JG - Jabegabe

ZEO - Zerbitzu-eginkizuna ordezte

LSO - Liberazio sindikala ordezte

Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

1.-Parte-hartzaileak. - (Administrazio eta zerbitzuetako pertsona funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioaren 4. artikulua, gobernu kontseiluak 2017ko irailaren 28an berretsia), (2018ko maiatzaren 21eko EHAAn).

Funtzionarioek hartu ahal izango dute parte jarduneko zerbitzuan badaude edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu badute (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), honako kasu hauetako batean egon ahal izango direlarik:

- Karrerako funtzionarioak dei egindako lanpostuaren talde eta eskala berekoa badira, talde eta eskala bikoitzera irekitako kasuetan izan ezik. Lanpostuotan talde eta eskala bietako funtzionarioek hartu ahal izango dute parte, dei egindako lanpostuak eskatutako betebeharrekoak beteta.
- Talde bereko baina beste eskala bateko karrerako funtzionarioak badira.
- Karrerako funtzionarioak deitutako lanpostuaren beheagoko hurrengo talde eta eskalakoak badira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Deialdian parte hartu ahal izango du dei egindako lanpostuaren betebeharrak betetzen dituen pertsonalak, baldin eta eskariak aurkezteko epea amaitzeko data baino urte bete lehenago zerbitzu betekizunen bidezko izendapenik jaso ez badu dei egindako lanpostuetarako, prozedura honen bidez lortuta.

2.- Beharrezko hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).

3.- Baldintza espezifikoa betetzen dela egiaztatzea, lanpostuak halakorik edukiko balu.